

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiko lursailak eskuratzeko prozedura finkatzen eta horien erabilera, gozamina eta ustiapena arautzen dituen araudiari behin betiko onespina ematea

2014ko ekainaren 27an egindako osoko bilkuran eman zion hasierako onespina udalbatzak Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiko lursailak eskuratzeko prozedura finkatzen eta horien erabilera, gozamina eta ustiapena arautzen dituen araudiari. Ez denez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu horren inguruan, erabaki hori behin betiko onartuzat jotzen da 2014ko martxoaren 24an, eta, horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko irailaren 16an

Alkatea

JAVIER MAROTO ARANZABAL

ERANSKINA

Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiko lursailak eskuratzeko prozedura finkatzen eta horien erabilera, gozamina eta ustiapena arautzen dituen araudia

Zioen azalpena.

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Sailak bere helburu orokorra betetzeko, hau da, tokiko ekonomiaren garapena sustatzeko eta horretarako laguntza emateko duen tresnetako bat da 'Basaldea' baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegia.

Nekazaritza ekologikoaren alorreko jarduerak garatzeko lursailak, ekipamenduak eta azpiegitura komunak utziz nekazaritzaren sektorean ekintzailletza sustatu nahi duen ekimen gisa definitzen da.

Ekimen hori Basaldea udal proiektuaren baitan sartzen da, nekazaritza ekologikoaren azpi-sektore ekonomikoa sustatu nahi baita horren bitartez, epe ertainean enplegua eta negozioak sortuz Arabako nekazaritza produktu ekologikoak ekoitzi eta banatzearen alorrean, esku-hartze ildo hauei jarraiki:

· Probintzian ekintzaile berriek zuzendutako nekazaritza ustiapenak sustatzea, alorrean da-
goen eskaera Arabako produktu ekologikoen bitartez asebeteko dutenak.

· Produktu ekologikoak banatu eta merkaturatzeko kanal bat abian jartzea, produktu horiek sendotzeko zentro bat sortuz eta bezeroentzako hornikuntza eta banaketa ibilbideak eta zerbitzuak osatuz.

· Bertako paisaia — Gasteizko nekazaritza paisaia eta dibertsitate biologikoa— mantentzea, guztion ondarea baita.

Kontuan izanik nekazaritza-enpresa ekologikoen mintegiaren funtzionamendua, kudeaketa eta administrazioa arautu beharra dagoela, Gasteizko Basaldea baratzezaintza ekologikoko enpresen mintegiaren araudia onestea proposatzen da.

1. artikulua. Araudiaren xedea eta aplikazio-eremua

1. Baratze lursailak esleitzeko prozedura arautzea du helburu araudi honek, baita bertan egiten diren laborantza lanak, funtzionamendu araudia eta erabiltzaileen erantzukizunak ere.

2. Gasteizko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorreko I-911 epigrafean ageri den udal lursaila da araudi honen aplikazio-eremua —katastro-erreferentzia: 80. poligonoa; 3, 4, 5 eta 6 lursailak—, zeinen gainean baitaude kokatuta baratze lursailak (I. eranskina. Basaldea eremuaren eta lursailen planoan).

3. Araudi honetan aurreikusten ez direnetan, modu subsidiarioan, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudian jasotako arauak aplikatuko dira.

2. artikulua. Erregimen aplikagarria eta arauketa

1. Jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezitatat sailkatu beharra dago baratze-lursail horien erabilera, Toki Erakundearen Ondasunen Araudiaren 75.1.b) araudiaren ildotik, eta, horrenbestez, eskatzaileen arteko lizitazioaren bitartez esleitu beharko dira baratze ekologikoak egiteko lursailak ustiatzeko baimenak, araudi honetan ezartzen diren lehentasun-betekizunak bete beharko baitira.

2. Beraz, jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimena izaki, jendaurreko erakustaldia eskaini beharko da, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Baratze ekologikoak egiteko lursailak esleitu, eduki eta baliatzeari dagozkienetan, araudi honetan aurreikusten den erregimena aplikatuko da.

4. Modu subsidiarioan, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudian jasotako arauak aplikatuko dira.

I. TITULUA. ERABILERA ETA USTIAPEN BALDINTZAK

3. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak

1. Eskubide hauek izango dituzte esleipendunek:

— instalazioak kontserbazio eta mantentze egoera onean jasotzekoa.

— lurra lantzetik ateratzen dituzten fruituak jasotzekoa, eta horiek merkaturatzeko, baldin eta indarrean dagoen legerian —zerga, lan eta merkataritza legerian— ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

— elementu komunak erabili, baliatu eta ustiatzekoa.

— enpresa-proiektua dela eta eskatzen zaien informazioaren konfidentziasuna gordetzeko.

2. Betebehar hauek izango dituzte esleipendunek:

– Nekazaritza ekologikoaren arauak betetzea. Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketazeari buruzko Kontseiluaren 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamenduan (EE) eta hori garatzeko gerora onetsi diren araudietan ezarritako arauekin bat datozen ekoizpen metodoak erabiltzea joko da ekoizpen ekologikotzat.

– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (ENEEK) izena ematea.

– instalazioak ongi erabiltzea, lursailak jaso zituzteneko egoeran mantentzea eta beste esleipendun batzuek erabili ahal izateko moduko egoera egokian itzultzea.

– jatorriz uzten zaien lursailaren egitura eta azalerari bere horretan eustea, udalak ezarritako mugak aldatu gabe eta, halaber, inongo obra edo itxiturarik egin gabe, salbu eta eskumena duen udal organoak alde aurretik horretarako baimena ematen dielarik.

– espazioak ahalik eta garbitasun, kontserbazio eta higiegi egoerarik onenean edukitzea, eta hondakinak behar bezala kudeatzea, udalak horretarako izendatu edo jarritako lekuan edo edukiontzian eta ez beste inon utziz.

– proiektuaren garapenaren inguruan eskatzen dion informazioa ematea udalari, haren ikuskatze lanak erraztea eta proiektuan diharduten pertsonen zerrendan gertatzen den aldakuntza ororen berri ematea.

– udalak antolatzen dituen bisitak baimentzea, eguna eta ordua alde aurretik jakinarazten zaielarik.

4. artikulua. Erabilera baldintza orokorrak

1. Ez dago baimenduta:

– lurra edo lurpea andearaz dezaketen espezieak edo landareak landatzea, edo legez debekatuta daudenak landatzea edo ereitea,

– laboreetan, garbiketan edo bestelako jardueretan lurra larriki kutsa dezaketen substantziak erabiltzea,

– horretarako egokituta ez dagoen edozein lekutatik ekartzea ura, ureztatzeko, lursail guztiek baitute zeinek bere hartunea, horretarako.

– ureztatzeko ura alferrik galtzea, edo dagoen ura neurritz kanpoko kontsumitzea dakarren ureztaketa metodoak erabiltzea,

– lur-lantze edo tratamenduekin baratze-lursailaren mugak gainditzea.

– belarrak edo labore hondarrak erretzea, edo bestelako surik egitea, mintegiaren esparruaren baitan,

– baratze-lursailen gainerako erabiltzaileei enbarazu egitea, esan nahi baita ezingo dutela erabili haiei enbarazu, kalte edo zauririk eragin diezaiekeen tresna, mekanismo edo sistemarik.

– lursailtan materialak edo lanabesak uztea edo pilatzea, salbu eta lurra lantzeko ezinbesteko direnak.

– berariaz lurra lantzearekin zerikusirik ez duten elementuak instalatzea; esaterako, bar-bakoak, estalpeak, etxolak eta abar.

2. Esleitutako espazioak ikuskatzeko ahalmena izango du udalak, kontserbazio egoera egiaztatzeko, eta egokitatzat jotzen dituen konponketak agindu ahal izango ditu.

II. TITULUA. ESLEIPEN-PROZEDURA

Azpi-lursailen esleipena.

1. Elkarren arteko lehia baliatuko du Gasteizko Udalak baratze ekologikoak egiteko lursailak esleitzeko —guztiak ere zuzeneko sarbidea izango dute, baita ureztatzeko hartunea eta ezartzen diren instalazio komunetarako sarbidea ere—.

2. Baratze-lursaila erabiltzeko eskubidea emango dio esleipenak sustatzaileari edo sustatzaile-taldeari —lursaila esleitu ahal izateko ezarrita dauden baldintzak betetzen diren artean baino ez ditu izango ondorioak esleipenak—.

3. Esleipendunek ezingo dizkiote esleipenaren ondorio diren eskubideak beste inori utzi, horien gainean kargarik ezarri edo bestetarako baliatu, kontratua bertan behera uztea ekarriko bailuke horrek, salbu eta, izena, forma juridikoa edo akziodunak aldatzen direlarik ere, aldakuntzaren aurreko jarduerari eta langileriari eusten bazaie, eta, pertsona fisiko edo juridikoren bat biltzen delarik hartara, hautatze irizpide objektiboetan finkatutako baldintzak betetzen badira.

4. Baratze ekologikoak egiteko lursailen esleipenak gehienez ere bost urteko iraupena izango dute, nahiz eta udalak indarrak gabe utzi ahal izango dituen baldin eta esleitu zirenean betetzen ziren baldintzak edo esleipendunei dagozkien betebeharrak betetzeari uzten bazaio.

5. Esleipen aldia bukatzen delarik, esleipendunek garbi utzi beharko dute lursaila, landutakoaren arrastorik gabe, berriro ere landu ahal izateko moduko egoeran.

6. artikulua. Esleipendun izateko betekizunak

1. Gutxienez urtebeteko antzintasunarekin Arabako lurralde historikoan erroldatuta dauden pertsona fisikoa edo juridikoa izan ahalko dira lursailen esleipendun, eta, bazkide edo langilerik izanez gero, baldintza hauek bete beharko dituzte horiek:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

b) Baratzea egiteko egoki den eta berehalakoan ustiatu ahal izateko prest dagoen inongo landa-lurren jabe ez izatea.

c) 60 urtetik beherakoa izatea.

d) Nekazaritza ekologikoko ekoizpenaren alorrean erdi mailako prestakuntza zikloa gainditua izatea; ingeniari agronomoa, nekazaritza-ingeniari teknikoa edo antzekoren bat izateko prestakuntza jaso izana; LH-II, nekazaritza, abeltzaintza edo nekazaritza ustiatzeko teknika espezialista; nekazaritza ekologikoaren alorreko profesional-ziurtagiria edukitzea, edo nekazaritza ekologikoaren alorreko prestakuntza-ikastaroak —sektore horretan onetsita dauden erakunde edo entitateek emanak— egin izana —250 ordu edo gehiagoko ikastaro bat nahiz ordu kopuru hori osatu arteko hainbat ikastaro—.

2. Azken betekizun horren lekuan, aski izango da gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatzea nekazaritza ekologikoan, edo urtebeteko esperientzia ohiko nekazaritzan, eta gutxienez 20 orduko prestakuntza-modulu bat egin izana ekoizpen ekologikora bihurtzeko, lehen kasuan, eta gutxienez 100 ordukoa bigarrenean.

7. artikulua. Esleipen-prozedura

1. Lursailak esleitzeko prozedura ofizioz abiaraziko du udalak, eskumena duen organoak deialdia —baratze-lursail guztiei nahiz horietako batzuei dagokiena— jasotzen duen ebazpena eman ondoren. Deialdi hori ALHAOn argitaratuko da —eskabideak aurkezteko epea noiz artekoa den adierazten delarik—, baita udalaren web-orrian ere (www.vitoria-gasteiz.org).

2. Lursailen bat esleitu dakiela nahi dutenek eskabidea egin beharko dute, Gasteizko Udalak emandako eredu baliatuz egin ere, eta erregistro nagusian edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean aurkeztu, edo burofaxez bidali —orobat egin ahal izango dute Gasteizko Udalak webgune ofizialean horretarako sortzen duen sarbidea baliatuz, bitarteko telematikoak barne—, agiri hauek erantsita:

a) Arabako lurralde historikoan erroldatuta daudela egiaztatzen duten agiriak, non urtebeteko antzintasuna ageri beharko baita —Gasteizen erroldatuta egonez gero, ofizioz egiaztatuko

da—, eta zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela egiaztatzen dutenak.

b) Zinpeko aitorpena, non aurreko artikuluan adierazitako betekizunak betetzen direla adierazten den.

c) Enpresa proiektua eta negozioaren bideragarritasun plana.

d) Sustatzaileen curriculum vitae, eta hurrengo atalean ageri den baremazioari dagozkionetarako beharrezkotzat jotzen dituzten egiaztagiria oro.

3. Tokiko Gobernu Batzarra izango da lursailak esleitzeko eskumena izango duen organoa, eta gutxienez hamar egun balioduneko epea ezarriko du eskabideak aurkezteko. Orobat onetsiko du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, baremazioa barne dela, eta iragarki taulan argitaraziko.

4. Gehienez 10 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak interesdunek. Epe hori bukatu eta aurkezten diren erreklamazioak ebatzi ondoren, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda jasotzen duen ebazpena argitaratuko da, baremazioa barne.

5. Onetsitako zerrendaren hurrenkerari jarraiki esleituko dira erabilgarri dauden lursailak, enpresa-proiektuaren eta negozioaren bideragarritasun planaren atalean gutxienez 5 puntu lortzen dituzten eskabideen artean.

6. Esleipendunei emango zaien agirian baratze-lursailaren xedea, definizioa eta kokalekua zehaztuko dira, baita erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta esleipenaren indaraldia ere.

7. Beharrezko den gutxieneko puntuazioa lortu arren lursailik eskuratu ez dutenak itxarote zerrendan geratuko dira, hori baliatuko baita hutsik geratzen diren lursailak esleitzeko, hurrenkerari jarraiki.

8. Ekonomia Sustapenerako Sailaren iragarki taulan eta Gasteizko Udalaren web orrian jarriko da itxarote zerrenda hori, eta esleipen publikorako beste prozesu baterako deialdia egin arte egongo da indarrean.

9. Deialdian ezartzen den azken egunaz geroztik aurkezten diren eskabideak itxarote zerrendara bilduko dira, baremazioaren arabera dagokien lekuan.

10. Aldian behin eguneratuko da itxarote zerrenda, eta zerrenda-kideek hartan jarraitzeko nahia adierazi beharko dute, baita horretarako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ere.

11. Itxarote zerrendan daudenek baremazioa berrikusteko eskatu ahal izango dute, zirkunstantziak aldatzen direlarik. Halaber, ofizioz ere egingo da berrikuste hori, interesdunei entzunaldia eskaini ondoren, baldin eta zerrenda-kideen zirkunstantziak aldatu egin direla jakiten bada.

8. artikulua. Eskabideei baremoa aplikatzea

Proiektu bakoitzak gehienez ere 12 puntu lortu ahal izango ditu. Irizpide hauek aintzat harturik balioetsiko dira proiektuak:

a. Enpresa proiektua eta negozioaren bideragarritasun plana. 9 puntu. (Atal honetan gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertu egingo dira)

a.1. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Gehienez 6 puntu.

a.2. Proiektuaren kalitate, azterketa eta garapen maila. Gehienez 3 puntu.

b. Enpresan erabateko dedikazioarekin lan egingo duen bazkide bakoitzeko, 0,5 puntu. Gehienez puntu 1.

c. Lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. 2 puntu.

c.1. Multzo hauetakoren baten barruan sartzen den proiektuko kide bakoitzeko: emakumeak, 34 urtetik beherakoak, nekazaritza-lanerako ezintzen ez duen ezintasunen bat duten pertsonak, aspalditik lanik gabe dauden 45 urtetik gorakoak: 0,5 puntu. Gehienez 2 puntu.

Berdintasuna egokituz gero, emakumeak buru diren proiektuei emango zaie lehentasuna. Berdinketa sexu bereko pertsonen artean egokitzen bada, azalpen-txostenaren eta bideragarritasunaren atalean puntuaziorik handiena lortu duena nagusituko da.

9. artikulua. Dokumentazioa eta modua

1. Azpi-lursaila esleitu ondoren, dokumentazio hau eskatuko da, esleipena formalizatze aldera:

– Bere izenean nahiz ahalduen gisa proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta enpresaren IFZ, baldin eta eskabidea egiten den unean bertan eratu bada.

– Pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratze eta, hala bada-gokio, aldatze eskritura, aplikagarri zaion merkataritza legediak betebeharrak hori eskatzen badu. Betebeharrak hori eskatzen ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, jarduera erregulatzeko arauak jasotzen dituen edo dituzten eratze eskritura, aldatze eskritura, estatutuak edo eratze akta baliatuko dira; dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute, hala egin behar den kasuetan.

– Pertsona juridikoa izanik, baldin eta eskabidea ez badu erregistroko titularrak sinatzen, administrazioarekin kontratuak egiteko ahalmena ematen duen ahalordetze eskritura ere aurkeztu beharko da, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eskabidea izenpetzen duen pertsonaren alde.

– Urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan jasotako egoeretako batean ere ez dagoela egiaztatzen duen agiria. 2. eranskinean ageri den aitopene-eredua baliatuz egin beharko da egiaztapen hori.

– Lehendik eratutako enpresa bat baldin bada, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dago-kion izen-emate agiria.

– Eskabidea egiteko unean artean eratu gabe dauden enpresen kasuan, gerora aurkeztu ahal izango dira eratze eskritura, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion izen-emate agiria, nekazaritza ustiategiaren txartela, nekazaritza ekologikoaren erregimeneko izen-emate agiria eta enpresaren IFZ. Dokumentazio hori, edo eskatu dela egiaztatzen duten ziurtagiriak, gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu beharko dira, esleipena jakinarazten delarik.

2. Adierazten diren agirien jatorrizkoak edo administrazioak nahiz notario batek behar bezala legezatu edo erkatutako kopiak aurkeztu beharko dira.

3. Esleipena formalizatu aurretik, eta horrek berekin ekarriko dituen betebeharrak beteko dituela ziurtatze aldera, esleipendunak bermea ezarri beharko du, zein diru-laguntzarik gabeko bi hilabeteko prezio edo errentaren parekoa izango baita. Berme hori udaletxean dirutan ordainduz ezarri beharko da, edo, bestela, behar bezala adostutako banku-abal baten bitartez, eta esleipen-aldi osoan eutsiko zaio, kontratu berria egiten den bakoitzean eguneratzeko beharrik gabe.

4. Lursailaren esleipenari eustekotan, betebeharrak guzti-guztiak bete beharko dira. Betebeharrak bat betetzen ez bada, dena delako esleipena baliorik gabe geratuko da.

10. artikulua. Jarduerari hasiera ematea, prezioa eta gastuak

1. Gehienez ere hilabeteko epean ekin beharko dio jarduerari esleipendunak baratze-lursaillean, esleipena formalizatzen den egunetik kontatuta, baldin eta eguraldiak aukera ematen badu, baldintza egokiak badaude eta lurra sasoian badago. Horrez gain, behar bezala

justifikatutako arrazoiak direla medio epe hori zabaltzerik izango da, Ekonomia Sustapenerako zinegotziaren ebazpen arrazoituaren bitartez.

2. Hektarea eta urteko 300.00 eurokoa izango da urteko kanona, eta urtero eguneratzerik izango da, Estatuko Kontsumo Prezioen Indizea aintzat harturik. Hainbanatuta ordaindu beharko da, hilabete bakoitzeko lehen hamabostaldian, dela udal ogasunaren bulegoetan, dela banku-helbideraketaren bitartez.

3. Basaldea proiektuarekin lortu nahi diren helburuak direla eta, baratze-lursail horien prezioek ehuneko 50eko hobaria izango dute lehengo bi alokairu-urteetan.

4. Esleipendunak bere gain hartu beharreko gastuen ordainketa hileroko egin beharko da, lehen hamabostaldian egin ere, dela udal ogasunaren bulegoetan, dela banku-helbideraketaren bitartez.

5. Esleipendunaren eta ez besteren kontura joango dira banako kontagailua duten zerbitzuen kontsumo-gastuak, hala nola ur edo energia kontsumoari dagozkionak, baita udalak zehazten dituen zerbitzu komunei dagozkienak ere.

11. artikulua. Eskualdatzea eta iraungipena

1. Baratze ekologikoak egiteko lursailak erabiltzeko eskubidea ezingo da eskuz aldatu, emandako epea agortzen delarik iraungi egingo da, eta arrazoi hauetakoaren bat egokitzen delarik baliogabetu ahal izango da:

- bi aldeek hala adosten dutelarik,
- ebazpen judiziala dela medio,
- esleipendunak atzera egiten duelako, edo uko egiten diolako,
- bi hilabeteko errenta ez ordaintzeagatik,
- jarduerari hitzartutako epean ez ekiteagatik,
- jarduera behin betiko bertan behera uzten delarik,
- azpi-lursaila araudi honetan ezartzen direnez bestelako erabilera edo helburuetarako baliatzeagatik,
- lursaila erabili edo lantzeari uzteagatik, hilabetetik gora,
- azpi-lursaila –osorik nahiz zati bat– besteri lagatzeagatik, alokatzeagatik edo zergapetzeagatik,
- araudian tipifikatutako arau-hauste oso larri batengatik zigorra jartzen delarik,
- araudi honetan, deialdiaren berariazko oinarrietan eta kontratuari aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako gainerako betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatik,
- heriotzagatik.

III. TITULUA. ERANTZUKIZUN-ERREGIMENA

12. artikulua. Esleipendunaren erantzukizuna

1. Azpi-lursailan bideratzen dituen jardueren ondorioz udalari nahiz besteri eragiten dizkion kalte eta galera ororen erantzule esleipenduna izango da, eta, aitzitik, Gasteizko Udalak ez du inongo erantzukizunik izango horretan.

2. Gasteizko Udala ez da izango, inolaz ere, baratzeak jartzeko azpi-lursailan, bertako produktu edo fruituetan nahiz erabiltzaileak han gordetzen dituen lanabesetan ekintza bandalikoan, lapurretan edo besteren ondorioz suertatzen diren kalteen erantzule.

3. Mintegiko funtzionamendu araudia kontuan izan beharko du uneoro esleipendunak, eta, hala egin ezean, bertan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango zaizkio.

4. Behar den prozedura izapidetuko da esleipendun izaera galtzea ekarriko duen ebazpena eman aurretik: gertakariak azalduko dira, 10 eguneko alegazio epea emango zaio interesdunari eta, guztiaren buruan, behin betiko ebartziko da dosierra.

5. Esleipendunak araudi honetan eta kontratuari aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, bermearen parte bat nahiz berme osoa bahituz zigortu ahal izango da, entzunaldi izapidearen ondoren, eta, horrez gain, esleipena bertan behera utzi eta indarrean dauden arauen arabera aplikatu daitezkeen bestelako neurriak hartu ahal izango dira.

13. artikulua. Lehengo egoerara bihurtzea

1. Jaso zutenekoaren antzeko egoeran itzuli beharko dituzte esleipendunek baratzeak jartzeko lagatzen zaizkien lursailak.

2. Instalazioak hondatuz gero —eta hondamen hori eguneroko erabilera arruntari egozterik ez badago—, konpondu edo jatorrizko egoerara bihurtu beharko dituzte baratze-lursailen erabiltzaileek.

3. Erabiltzailearen batek ez badu betetzen egoera lehengora bihurtzeko betebeharra, udalak egin ahal izango du zuzenean, haren kontura, eta administrazioak halakoetan ordainarazteko duen ahalmenaz baliatu gero.

14. artikulua. Jurisdikzioa

1. Kontratu horiek gauzatu eta betetzeari nahiz dituzten ondorioei dagokienez sortzen diren auziak ebazteko Gasteizko jurisdikzioan horretarako eskumena duen epaitegira joko da.

2. Nolanahi ere, esleipena gauzatu zenean indarrean zegoen araudiaren aldean egungo esleipendunei onuragarri gerta dakizkiekeenetan, aldeko atzeraeragina aplikatu ahal izango da.

IV. TITULUA. DIZIPLINA ERREGIMENA

15. artikulua. Arau-hausteak

1. Araudi honen kontrako egintzek nahiz ez-egiteek administrazioako arau-hausteen izaera izango dute, eta bertan zehazten diren kasuetan, moduan eta neurriekin zigortuko dira, salbu eta lege penaletan jasotzen diren delituak edo hutsegiteak izan badaitezke.

16. artikulua. Sailkapena

Aurreko artikuluan aipatutako arau-hausteak arinak, larriak nahiz oso larriak izan ahalko dira

1. Araudi honen kontrako arau-hausteak arintzat joko dira, hurrengo ataletan berariaz larrizat edo oso larrizat jotzen direnak izan ezik.

2. Arau-hauste larrizat joko da mintegia ezartzeko lanetan laguntzen duten udal langileei nahiz beste edozein erabiltzailei tratu txarrak ematea, ahoz nahiz ekintzez, betebeharrak komunak betetzeko orduan, baita espazioak gaizki edo oker erabiltzea ere, hau da, araudia urratuz. Era berean, arau-hauste larrizat joko da urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago pilatzea.

3. Orobat joko dira arau-hauste oso larrizat honako hauek: lursaila eta instalazioak, zertarako utzi diren, beste edozertarako baliatzea; mintegian sartzeko aurkeztu beharreko agiriak, sinadurak, zigiluak eta datu nabarmenak faltsutzea; udalarekiko betebeharrak ekonomikoak ez betetzea; Mintegiaren Araudia behin eta berriro urratzea, eta hiru arau-hauste larri egitea.

17. artikulua. Ikuskapena

1. Udalak izendatutako langileek ikuskatze-lanak egin ahal izango dituzte utzitako instalazioetan, baratze-lanak egiteko ezarritako ordutegien barruan. Langile horiek agintarizat joko dira, beren ikuskatze zereginetan dihardutelarik.

Era berean, alkateak eta zerbitzuaren gaineko eskumena duen zinegotzi ordezkariak zeregin eta egiteko berak izango dituzte.

2. Baratze-lursail ekologikoen erabiltzaileek bertara sartzen utzi beharko diete udal langile horiei, baita eskatzen dizkieten argibideak eman ere, lursailetan lantzen direnen kudeaketari, erabilerari eta ustiapenari jarraipena egiterik izan dezaten hartara.

18. artikulua. Zigorrak

1. Zigorrak jartzeko eta horien zenbatekoak zehazteko araudi honetan zehazten diren mailakatzeko-irizpideak hartuko dira aintzat.

2. Arau-hauste arinak 60,00 eurotik 300,00era bitarteko isuna jarriz zigortuko dira.

3. Arau-hauste larriak 301,00 eurotik 1.000,00ra bitarteko isuna jarriz zigortuko dira, edo esleipena aldi baterako bertan behera utziz, hilabete batetik urtebettera bitartean.

4. Arau-hauste oso larriak 1.001,00 eurotik 3.000,00ra bitarteko isuna jarriz zigortuko dira, edo esleipena baliogabetuz.

19. artikulua. Zigortzeko eskumena duen agintaria

1. Alkateak izango du zigorrak jartzeko eskumena.

2. Nolanahi ere, beste edozein organo lokalen esku utzi ahal izango du alkateak zigortzeko eskumena, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen ildotik.

20. artikulua. Zigortzeko prozedura

1. Arau-hausleei zigorrak jartzeko, alde zuzenetik prozedura zigortzailea abiarazi eta izapidetu beharko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen IX. tituluaren xedatutakoaren ildotik.

ERANSKINAK**1. eranskina. Basaldeko baratze-lursailen banaketa**

II. ERANSKINA:
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATUEN LEGEAREN 49. ARTIKULUAN JASOTAKO
KONTRATATZEKO DEBEKU EGOERETAN EZ EGOTEAREN ZINPEKO AITORPENA

ANEXO 2:
DECLARACIÓN JURADA DE NO ESTAR INCURSO O INCURSA EN NINGUNA PROHIBICIÓN PARA
CONTRATAR DEL ARTÍCULO 49 DE LA LEY DE CONTRATOS DEL SECTOR PÚBLICO

Jaunak/andreak (lehiakidearen izena eta bi deiturak edo izen soziala)
D/Doña (nombre y apellidos o denominación social del licitado/a)

Izena - Nombre	Lehen deitura - Primer apellido	Bigarren deitura - Segundo apellido
Helbidea - Dirección		
NAN - DNI		

bere izenean edo honen ordezkari gisa. enpresa ordezkatzuz (ordezkatua eta ordezkaritza egiaztatzen duen ahalmena adieraziz),
en nombre propio o en representación de (indicando la persona representada y poder que acredite tal representación),

HONAKOA ADIERAZTEN DU - MANIFIESTA LO SIGUIENTE:

Zinpean aitortzen dut ez nagoela Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 49. artikuluan jasotako kontratatzekeo debeku-egoeretan.

Declaro juradamente que no me encuentro incurso o incurso en ninguna de las prohibiciones establecidas para contratar del artículo 49 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Vitoria-Gasteizen,

Izenpea - Firma

3. eranskina. Definizioak

a) Erabiltzailea. Esleipenduna edo esleipenaren titularra: esleitzen den ondasuna erabili eta ustiatzeko eskubidea bereganatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Kasu honetan, baratze-lursail ekologikoaren onuraduna.

b) Fruituak. Baratze-lursaila erabiltzetik sortzen diren etekinak, hau da, lurra landu eta erietearen emaitzak, hala nola barazkiak, fruituak eta beste.

c) Elementu komunak. Baratze-lursailak dauden lursailean dauden elementu naturalak nahiz bertan jarriak dira, jabe batek baino gehiagok edo guztiek baliatzekoak, hala nola pasabideak, hesiak, hodiak, biltegiak, mugarriak eta abar. Orobat jotzen dira elementu komuntzat erabiltzaileen eskura jartzen diren lanabes eta erremintak.

d) Erantzukizuna. Baratze-lursailen erabiltzaileetako bakoitzaren erantzukizuna, erabiltzaile den lursailaren gainean.

e) Baratze-lursail ekologikoa. Lursail banakatua, zeinen gainean eratzten de erabiltzaileak hura erabiltzeko, baliatzeko eta lortutako produktuan merkatuan ustiatzeko eskubidea.

f) Lursaila. Baratze-lursail ekologikoak kokatuta dauden udal lursaila (Basaldea).